

2006-07-27KO OHIZ KANPOKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta seigarren urteko uztailaren hogeita zazpian, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Agustin Zubeldia Iraola jauna, M. Jesus Otaño Zumeta andrea eta Eugenio Loidi Garmendia jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute Aitor Lasa Olalde jaunak, José Luis Olano Zubeldia jaunak eta Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: inork ere ez.

Udaleko idazkariak –Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jauna– egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

Saioa hasitakoan, Udalbatzak gai-zerrenda aldatzea eta lehenbizi 6. gaia lantzea erabaki du, aho batez.

SEIGARREN GAIA

IKASTETXE BAT ERAIKITZEKO HELBURUAREKIN LURSAIL BATEN GAINEKO LURRAZAL-ESKUBIDEA EMATEKO BALDINTZEN ORRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkatetzak azaldu du eskola-eskaria handitzen ari dela etengabe udalerrian, eta, horregatik, azken urteotan, 150 haur inguru hartuko dituen ikastetxe bat –2-12 urte bitarteko lerro osoa izango duena– ipintzeko helburua izan duela udalak. Gaur egun eskari hori beteta dago udalerrian, neurri txiki batean, ikastola txiki bat baitago eta gainerakoak udalerritik kanpo baitoaz: Anoetako ikastolara edo Tolosako edo beste udalerrietako ikastetxeetara. Udalak ikastetxea eraikitze moduko lursail bat izanik ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adierazi du ez dagoela aurreikusita Iruran ikastetxe bat eraikitzea. Hala, Iruran horrelako ikastetxe bat edukitzeko helburua kontuan hartuta, udaleko lursail baten gaineko lurrazal-eskubidea ematea erabaki da, ikastetxe bat eraiki eta kudeatzeko.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena aztertu da.

Horregatik guztiagatik, udalbatzako kideek honako hau onartu dute aho batez –udalbatzaren legezko kopuruari dagokion gehiengo absolutuak aldeko botoa eman baitu (apirilaren 2ko Toki Jardunbidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 47.2.j) artikuluan ezarritakoaren arabera)–:

Lehena.- Udaleko lursail honetan lurrazal-eskubidea sortzeko espedientea martxan jartzea:

- Irurako 1. sektoreko Borondatezko Birzaketan B letraz identifikatutako onibarretik bereizi beharreko lursaila.

- Azalera: 3.273,90 m²

- Aprobetxamendu maximoa: 1.476,94 m².

- Eraikuntza-profila: SS+PB+1PA.

Helburua izango litzateke kontzertatutako Hezkuntza zentro bat eraikitzea, derrigorrezko lehen mailako irakaskuntzakoa.

Bigarrena.- Lurrazal-eskubidea arautuko duen kondizio juridiko-administratiboen eta esleipen-kondizioen baldintzen orria onartzea.

Hirugarrena.- Udalak konpromisoa hartzea, diru-ekarpenak egitea egokituko

balitzaio, behar adinako diru-kantitateak emateko dagozkien aurrekontu-ekitaldietan.

Laugarrena.- Kontratazio-espeditentea martxan jartzeko, dagozkion iragarkiak argitaratzea.

Behin betikoa da hitzarmena bide administratiboari dagokionez. Horren aurka, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan.

LEHENBIZIKO GAIA

IRURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 22. EREMUKO (MANUFACTURAS IZASKUN) ETA 5. EREMUKO (ISIDROENEA) ZATI BANARI DAGOKIEN HIRIGINTZA-HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Udal honetako Alkatetzak Lurra Promoción y Gestión S.L. eta Manufacturas Izaskun S.A. enprekin sinatutako hitzarmenaren berri eman da: Irurako Arau Subsidiarioetako 5. eremuko Isidroenea lursailaren (etxebizitzetarako hiri-lurzorua) eta Arau Subsidiarioetako 22. eremuan dagoen Manufacturas Izaskunen lursailaren (hiri-lurzoru industrial) hirigintza-garapenari buruzkoa da.

Hitzarmenaren lehenbiziko helburua da egitekoak diren eraikinen lerrodurak aldatzea, Xehetasun Azterketa baten bidez; bigarrena, berriz, erabilera etxebizitzetarako aldatzea dagokion hirigintza-ordenamendua finkatuta eta dagozkien Arau Subsidiarioen aldaketa puntual bat eginda. Halaber, lagapen-erregimena % 10ekoa izango dela ezarri da.

Hori dela eta, parte-hartzaile guztiak ados daudelarik, udalbatzak aipatutako Hirigintza Hitzarmena baimentzea onartu du.

Behin betikoa da hitzarmena bide administratiboari dagokionez. Horren aurka, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan.

BIGARREN GAIA

IRURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 5. EREMUKO ZATI BATEAN (Isidroenea lursaila) XEHETASUN-AZTERKETA EGITEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

2006ko otsailaren 3ko Alkatetza Dekretuaren bidez (14 zk.), Irurako Udaleko Hirigintza Planeko Arau Subsidiarioetako 5. eremuko zati batean Xehetasun Azterketa egitea onartzea erabaki zen hasiera batean. Azterketa hori Promociones Lurra S.L.k sustatu zuen, Javier Flores arkitektoak idatzitako Proiektu Teknikoan oinarrituta (dagokion Profesional Elkargoak oniritzia eman zion 2006/02/03an).

Ondoren, horren berri publikoki eman zen (2006/02/16ko Probintziako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco eta Hitza egunkarietan iragarrita) eta audientzia eman zitzaien interesa zutenei. Halaber, zuzenean jakinarazi genien dagokien lursail-jabeei.

Denbora-tarte horretan, alegazio hau aurkeztu da:

- José Antonio Gurruchaga Aramburu jaunak Manufacturas Izaskun izeneko onibarraren jabeen izenean egindakoa. Alegazio horretan, lerrokadura batzuk zuzentzea proposatzen du.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saileko txostena eskatu eta jaso da (2006ko otsailaren 27koa), Errepideen araudiaren arabera. Txostena aldekoa da eta eraikiko den proiektuari buruzko kondizioen bat aipatzen du.

J. A. Gurruchaga jaunak aurkeztutako alegazioei dagokienez, Udalak eta

sustatzaileak –M. Izazkunena da– hitzarmena adostu aurretik, dokumentua berridatzi eta Xehetasun Azterketako beste dokumentu bat idatzi da. Dokumentu hori Javier Flores arkitektoak sinatu du, eta dagokion Elkargo Ofizialak oniritzia eman dio (2006/03/31n).

Proiektu berri horren aldeko txostena egin du Iñaki Echeverria arkitektoak, Irurako Arau Subsidiarioen egileak.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena aztertu da.

Udalbatzaren bileran direnek aho batez onartu dute hau:

Lehena.- Tramitatutako Xehetasun Azterketa, 2006ko martxoaren 31n bisatua, behin betiko onartzea kondizio hauekin:

1.- Eremuaren azaleraren erreferentziak ez direla jarri joko da, eta dokumentu hauetan zehaztu behar dira:

- Jarduera Unitatearen mugak.

- Berdinbanaketa-dokumentua.

2.- Nolanahi ere, ondorengo garapen gisa eta lizentzia eman baino lehen, jarduera eta espediente hauek egin behar dira:

- Jarduera Unitatea mugatu.

- Jarduera Sistema ezarri.

- Berdinbanaketa-dokumentua.

- Hirigintza Proiektua idatzi (proiektu bateratua izango da eremu honetarako eta Manufacturas Izaskunen 22. eremurako).

Proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Ur Administrazioak edo dagokion erakundeak onartu behar du.

Eraikinaren Eraikuntza Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailak onartu behar du behin betiko.

Ustezko eremu arkeologikoei dagokien araudia ere bete behar da.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko argitalpena egitea, eta hortik aurrera proiektua gauzatzen hasiko da.

Egintza hau behin betikoa da bide administratiboan. Bere aurka auzi-errekurtsoa jar daiteke.

HIRUGARREN GAIA

UDALEKO FUNTZIONARIOEN ETA LANGILEEN LAN-KONDIZIOAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalaren Negoziazio Mahai Orokorraren Akta irakurri da, Aitor Lasa Olalde jaun zinegotziak –Udalaren izenean– eta ELA eta CCOO sindikatuek sinatua.

Lehendik dauden Klausula onuragarrienen eranskinaren bigarren atalari dagokionez, zerbitzuen zuzeneko kudeaketaren gainean, idazkari kontu-hartzaileak adierazi du txostenean hori ez dela klausula onuragarrienetako bat.

Hori dela eta, Alkatetzak proposatuta, aho batez onartu du udalbatzak, bileran zirenek hala bozkatuta, aztertu beharra dagoela.

Akordio hori izapide bat da. Baina akordioaren hirugarren puntuari dagokionez, auzi-helegitea aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan.

LAUGARREN GAIA

UDAL HONETAKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONA-

LIZATZEKO PROGRAMA ETA LANPOSTUEN ERANSKINA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Hitzarmen Proposamen hau egin da:

Azken urteetan udalerrri honetako biztanleak asko ugaritu dira, eta era berean handitu dira udalak eskaini beharreko zerbitzuak eta udal-aurrekontua. Horren ondorioz, langile-beharrak handitu egin dira, eta, lanpostu horiek behin-behinean bete ondoren, langile berriak lantaldean txertatu beharra dago.

Bestalde, dagoen langile-taldea eta azken urteetako esperientzia kontuan hartuta, lantaldea eraberritu eta egitura hobetu beharra dago.

Azkenik, aspaldian ez zen lanpostuen edukia eta balioztatzea berrikusi; lan hori egin dugu kanpoko aholkularitza egokiarekin, indarrean dagoen legediari eta Udalhitz-en edukiari egokituz.

Programa hau egiten udal-langileen ordezkariak ere parte hartu dute.

Halaber, dagokion aurrekontu-esleipena du.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren eta gainerako legeria aplikagarriaren arabera.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.-Helburua da udal honetako langile-taldea arrazionalizatzea benetako beharretara egokituz, antzemandako arazoak konpontzea eta lanpostuen zerrenda eguneratua eta betebeharrak zehaztuko dituen onartzea.

2.-Programa Irurako Udaleko langile guztiei aplikatuko zaie.

3.-Programa hau 2006ko ekitaldian egongo da indarrean.

II. GARAPEN-NEURRIAK.

1.-Lanpostu berriak sortzea.

Langile-beharrak kontuan hartuta eta egungo lanpostuak hartutako esperientziaren arabera arrazionalizatuta, lanpostu berri hauek sortu dira:

a) Lanpostu berriak:

-Kultura-arloko laguntzailea.

-Euskara-teknikaria.

b) Daudenen berrantolaketa:

-Herritarren arretarako administraria.

-Zerbitzuen arduraduna.

2.-Amortizatzeko lanpostuak.

Lanpostu hauek "amortizatu beharreko"tzat jotzen dira:

-Administrari laguntzailea.

- Zerbitzu Orokorraren Arduraduna.

3.-Barne-sustapeneko programa.

Barne-sustapenaren bidez hornituko dira lanpostu hauek:

-Herritarren arretarako administraria.

-Zerbitzuen arduraduna.

4.-Langileak funtzionario bihurtzea.

Gaur egungo langile-taldea aldatu eta lanpostu hauek funtzionario-lanpostu egiten dira, lanaldi partziala izan arren, zereginak kontuan hartuta:

-Ordenantza-jakinazlea.

-Arkitekto teknikaria.

-Kultura-arloko laguntzailea.

-Euskara-teknikaria.

-Gizarte-langilea.

5.-Langile-taldea.

Programa honen ondoriozko langile-zerrenda I. Eranskin gisa onartzen da,

2006rako onartutakoaren aldaketa moduan, 2009ko maiatzaren 9an.

6.-Lanpostuen zerrenda.

II. Eranskin gisa onartzen da Lanpostuen Zerrenda berria, Eginkizunen Eskuliburuarekin eta Balioztatze-eskuliburuarekin.

Xedapen gehigarria.

1.-Lanpostuen balioztatze berriaren ondorio ekonomikoak atzerakoak izango dira 2006ko urtarrilaren 1a arte.

2.-Ofizialaren lanpostuan sortutako aparteko lanorduak honela ordainduko dira: % 50 oporren bidez eta gainerako % 50a ordainsariaren bidez.

7.-Aldi baterako xedapena.

Lanpostu hauetan, barne-sustapen bidez goikoetara igo bitartean eta une honetan egiten dituzten zereginak kontuan hartuta, bete beharreko lanpostu berriei dagozkien eta lanpostu-mailako osagarrien eta berriarazko osagarrien arabera ordainduko zaie. Soldata eta antzintasuna aurrekoenak izango dira:

-Administrari laguntzailea.

- Zerbitzu Orokorren Arduraduna.

Halaber, Programa hau Irurako udalbatzak onartu du 2006ko ekainaren 26ko saioan.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzaren bileran direnek aho batez onartu dute, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki dute.

Akordio hori izapide bat da. Baina akordioaren hirugarren puntuari dagokionez, auzi-helegitea aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan.

BOSGARREN GAIA

BAKE-EPAILE TITULARRAREN ETA ORDEZKOAREN HAUTAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gai honi dagokionez, Alkatetzak proposatuta, aho batez onartu du udalbatzak, bileran zirenek hala bozkatuta, aztertu beharra dagoela.

ZAZPIGARREN GAIA

UDALEKO 2005EKO EKITALDI EKONOMIKOKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA AURKEZTEA.

Alkatetza Dekretu honen berri eman dute:

“Udal honen 2005eko ekitaldi ekonomikoko aurrekontuaren likidazioa eta hori osatzen duten dokumentuak ikusita –idazkari kontu-hartzaileak eman du horien berri-, eta onartuta, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49. artikulua araberago dagozkidan eskumenak kontuan hartuta,

ERABAKI DUT:

Lehen.- Udal honetako 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzea, honela laburtzen dena:

1.- Altxortegiko funts likidoa 2005/12/31n:	596.679,84 €
2.- 2005/12/31n kobratzeko zeuden saldoak:	189.864,98 €
Aurrekontu-zordunak:	188.237,58 €
Aurrekontuz kanpoko zordunak:.....	1.458,89 €
- Aplikatzeko zeuden kobraketak:	168,51 €
3.- 2005/12/31n ordaintzeko zeuden saldoak:.....	602.312,89 €
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	259.244,63 €
Diru-sarreraren aurrek. hartzekodunak:.....	

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:342.769,01 €
Aplikatzeko zeuden ordainketak:.....299,25 €

- 4.- Altxortegiko soberakin gordina (1+2-3):184.231,93 €
- 5.- Kobratzeko zail diruditen saldoak:1.958,96 €
- 6.- Altxortegiko soberakin likidoa (4-5):.....182.272,97 €
- 7.- Diru-sarrerei lotutako gastuetarako altxortegiko soberakina:
- 8.- Gastu orokorretarako altxortegiko soberakina (6-7):182.272,97 €
- 9- Indarrean dagoen aurrekontuaren aurrekontu-eragiketen emaitza:
- 10.- Aurr. Ekitaldian likidatutako aurrekontuen eragiketen emaitza: .
- 11.- Altxortegiko soberakinarekin ordaindutako obligazioen doikuntza:
- 12.- Diru-sarrerei lotutako gastuetako desbideratzeen doikuntza:
- 13.- Aurrekontu-emaitza (9+10+11+12):.....
- 14.- Kreditu txertagarrien soberakinak:
- 15.- Kreditu ez-txertagarrien soberakinak:
- 16.- Kreditu-soberakinak guztira (14+15):182.272,97 €

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari Likidazio Espedientearen kopia bidaltzea, goian aipatutako Foru Arauaren 49. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Hirugarrena.- Dekretu honen berri ematea Udaltzari, hurrengo bileran."

Udaltzaren bilera direnek aho batez onartu dute aintzat hartzea erabakia.

ZORTZIGARREN GAIA

2006KO AURREKONTUKO 1. ZENBAKIKO KREDITUEN ALDAKETA-ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2006ko ekitaldirako Udaleko Aurrekontuko 2. zenbakiko kredituen aldaketa-espeditentearen berri eman du idazkari kontu-hartzaileak.

Udaltzaren bilera direnek aho batez onartu dute hau:

Lehen.- 2006ko ekitaldi ekonomikorako Udaleko Aurrekontuko 1. zenbakiko kredituen aldaketa-espeditentea onartu da, hasiera batean.

Bigarrena.- Espedientea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta informazio publikoko epea 15 egunekoa izatea; egun horietan, interesa dutenek aztertu eta udaltzaren erreklamazioak aurkez ditzakete.

Espedientea behin betiko onartutzat joko da, epe horretan erreklamaziorik egiten ez bada. Espedientearen laburpena argitaratu behar da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:35ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN du.